

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

Urte berri bat Legazpiko Agenda 21eko Foroarentzat... eta erronka berriak aurretik!

“Bizi garen gizartean ez dago hausnarketarako astirik, aurrera goaz etenik gabe.
Baina aurrera, norantz?”



Legazpiko Agenda 21eko Foroak 2007. urteko bere lehen bilera egiteko elkartu da gaur. Tartetxo bat hartu du gelditu eta ozen pentsatzeko, eztabaidatzeko, proposatzeko,... aurrean ditugun erronkak oso inportanteak baitira!

Eta etenaldi hori egin da, noizbehinka, beharrezkoa delako atzera begiratzea eta egindako bideari erreparatzea, emandako urratsak berraztertzea, hobetu daitekeena ikustea,... eta, hortik abiatuz, erronka berriak jartzea, ibilbide eta lan berriei ekitea, ilusioz eta gogoz.

Horregatik, hemen bildu gara...

Talde handia bildu da gaur, desberdina eta aurpegi berriak ere ikusten dira; baina denek dute ikasteko, eztabaidatzeko, ekarpenak egiteko eta gauzak konpartitzeko gogoia eta hori guztia Legazpiren alde. 25 pertsona elkartu dira hemen: ordezkari politiko, teknikariak, herriko elkarte eta taldeetako ordezkariak, bizilagunak,... ; udalerrriarekin konpromisoa hartu duten legazpiarrak. Guztiei, **eskerrik asko!**

Izena
• Montse Vallejo
• Vicente Garmendia
• Floren Gutiérrez
• Jose Luis Cid
• Martin González
• Eugenio Salvador
• Jose Luis
• Javier Iraeta
• Juan Carlos Altzelai

Izena
• Mariano Guerreiro
• Juan Miguel Urrutia
• Junkal Fernandez
• Fernando Martínez de Albéniz
• Gloria Martínez de Guereñu
• Agurtzane Elustondo
• Jose Luis Zabaleta
• Arantxa Segurola
• Manuel Fernandez

Izena
• Iñaki Mendia
• Maite Lazaro
• Josune Makaia
• Milagros Noguera
• Inma Hernández
• Juan Ramón Larrañaga
• Iciar eta Zorione, Prometea SC

Hiru helburu ditugu:

Hiru izan dira, gaur foroaren saioan aztertu diren gai nagusiak:

- **Legazpiko udalerrriak iraunkortasuna lortzearen alde 2004-2007 eperako egin duen Ekintza Planaren burutze-mailaren ebaluazioa.** Nola goaz? Zein neurritan bete ditugu aipatu Planean hartutako konpromisoak? Zein ekintza geratzen dira egiteko?
- **2007. urterako aurreikusi diren ekintzak aurkeztu dira.** Ekintza Planaren azkeneko urtea dela kontutan hartuz, zeintzuk dira garatuko ditugun ekintzak?
- **Kualitate Lantaldeak 2006an zehar Legazpiko Agenda 21 bultzatzeko eta sustatzeko garatu den estrategiari** buruz egin duen lanaren emaitzak aurkeztuko dira. Marko berri honetan, zein da Legazpiko Agenda 21eko Foroaren eginkizuna?

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

3 gairen artean **5 minutuko argi-itzalaldia izan genuen (19:55etik 20:00era)**; modu horretan "Lurraren lagunak" taldearen ekimenarekin bat egin dugu. Aipatu taldeak argi-itzalaldi hori mundu mailan egitea proposatu du, herritarrek eta gobernuek kontura daitezten ezinbestekoa dela klimaren aldaketaren gainean zerbait egitea eta, beraz, energiaren kontsumo arduratsua bultzatu beharra dagoela.

Segidan, gaiak banan-banan hartu eta taldean eztabaidatu ditugu. Argi geratu denez, foroak hausnarketarako ideiak eta asmoak eskaini dituelako eta horiek soseguz aztertzea komeni da. **Eskerrik asko**, beraz, parte hartu duten guztiei!


- Legazpiko iraunkortasunerako 2005-2007 Ekintza Planaren burutze-mailaren ebaluazioa.**

Inma Hernandezek, udaletxeko Agenda 21eko teknikariak, 2006ko bukaera aldera, Legazpiko iraunkortasuna lortze aldera 2005-2007 eperako egin den II. Ekintza Planaren gainean egindako ebaluazioaren ezaugarri nagusiak eman dizkigu. Bigarren plan horrekin 2001-2004 epean garatu zen lehen planari eman nahi izan zaio jarraipena. Laburtuz, ideia nagusiak ekarri ditu hona:

- Legazpiko Irunkortasunerako Ekintza Plana aurrera doa**

Erreferentzi-data 2006ko urte bukaera izanik, "argazkiak" erakusten duenez, ekintzen %6 bukatuta daude; %90 bideratzen ari dira (horietako asko oso aurreratuta eta ia bukatzeaz daude); eta %4 bakarrik daude oraindik hasi gabe.


Ekintza Planaren exekuzio-egoera ebaluatutako azken urtean (2006)



- Beste udalerriekin alderatuz, zein da ekintzak betetzeko erritmoa?**

Legazpiko Ekintza Planaren betetze-maila Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik dago.

Udalerriko eta Gipuzkoako T.A 21 en Ekintza Planaren exekuzio-mailen batz-beste konparaketa




AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

- Lerro estrategikoak, non aurreratu da gehien? Aldiz, non sumatzen dira iraunkortasunaren aldeko ekintza txikiagoak?**

Grafikoan ikusten denez, "Atmosfera eta akustika" eremuan egin dira ekintza gutxien; aldiz, "Hiri-eremua" izeneko lerro estrategikoan egin diren ekintzen %70 ia bukatzeaz daude.

Ildo Estrategikoen araberrako exekuzio-egoera




- Ebaluazioa osatzeko, zein da hurrengo eginkizuna?**

Inma adierazi digu hurrengo lana egindako ebaluazioa iraunkortasunaren adierazleen kalkulura eta bilakaerara lotzea dela. Beste era batera esanda, ekintza horiek burutzeko egin den ahaleginaren ondorioz iraunkortasunaren adierazleak hobetu diren aztertu behar da.

- Laburtuz, ebaluazioak aurrera egitea ahalbidetuko digun zirkulua ixten du....**

Ebaluazioaren ondoren, eta emandako urratsak ezagutu eta haien gainean hausnartu ondoren, helburu berriak ezarri ditzakegu eta hurrengo urtean edo epealdian garatuko diren ekintzen programa egin dezakegu; horri esker, Agenda 21 aurrera doan eta gorpuzten doan prozesua da.

Ekintza planaren kudeaketa



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

• **Aurtengo 2007rako aurreikusi diren ekintzen aurkezpena.**

Bere azalpenean, Inmak 2007. urterako Legazpiko Udalak aurreikusi dituen ekintza nagusiak azaldu dizkigu. Ekintza horiek, nolabait, "emanda datoz" Legazpiko Iraunkortasunerako II. Ekintza Planean egiteko geratzen direnak baitira.

Gai-arloka, ondoko koadroak **aurreikusitako ekintza nabarmenenak** agertuko ditu:




- **Hondakinak:** Asteko azokan zaborra bereiztea.
- **Aizkorriko Parke Naturala:** Parkea kudeatuko duen organoa sortzea. Organo hori eratu ondoren (Legez, aurten egin behar da hori), Legazpiko Udalak bere jardueran parte hartu ahal izango du.
- **Industria:** Prestakuntzako ekintzak eta hondakin gaiekin lotutako ekintzak garatzea (industrialdeetan bilketa bateratua...)
- **Energia:** Energia-eraginkortasunaren azterketatik ondorioztatuko ekintzak.
- **Ura:** Saneamenduko eta ur-hornidurako hodiak berritzea; horretarako aurreikusitako lanetaz baliatuko gara eta, ur-horniduraren kasuan helburua hodietan ematen diren ur-galerak murrizteko. Gai horien gaineko eskumena Udalarena da, nahiz eta sinatutako hitzarmenaren arabera Gipuzkoako Urak izan gai horiek kudeatzen dituen.
- **Irisgarritasuna.**
- **Mugikortasuna:** Kale Nagusia oinezkoentzako kalea bihur daiteke eta Urola Kanean ere zenbait jarduketa egingo dira (mugikortasun iraunkorrago sustatuko duen plan bat bultzatu nahi da: bizikleta eta autobusa erabiltzea bultzatuko duen plan bat)
- **Baso-politika:** PEFC jarraibideak ezartzea Legazpiko herri-basoetan (PEFC ziurtagiria basoetako kudeaketa iraunkorren borondatez sustatzeko eta ziurtatzeko sistema da).
- **Udal Ekoscan:** Kontsumo eta kudeaketa iraunkorrago sustatzen jarraituko dute; oraingoan paperezko bestelako materialetan (koadernoak...) eta berogailuko gasean. Gainera, udal lantaldeak ahalegina egingo du pinturak, lakak,... eta abar hobeto kudeatzen eta inausketako hondakinak konposta egiteko erabiliko da.
- **Eskolako Agenda 21:** 2006-2007ko ikasturte honetan Legazpiko ikastetxeetan azkeneko hiru urteotan landu dituzten gaiak sakontzen ari dira: hondakinak, ura eta energia. Bestetik, martxoaren bukaeran Eskolako Agenda 21eko bilera egingo da.
- **Sentsibilizazioa:** Hainbat kontzientziatze-ekintza antolatuko da: Aste Berdea, Mugikortasunaren Astea, Zuhaitz Eguna eta Erreka Eguna.
- **"Haurtzarora eta Ingurumena" izeneko proiektuan hartuko da parte.** Proiektu hori Zumarragako ospitalean daramate aurrera haurdun dauden 900 emakumerekin. Helburua: ama-elikadurak eta ingurumenaren kalitateak haurren osasunean duten eragina aztertzea.
- **Legazpi Bai! Proiektua bideratzea.** Proiektuaren helburua Legazpin datozen urteetan garapen ekonomiko iraunkorra bultzatuko dituzten alternatibak identifikatzea, planifikatzea eta sustatzea da.
- **Nazioarteko lankidetzarako laguntzak:** Aurten udal aurrekontuen %0,7 lankidetzako proiektuetarako izango da.
- **Gazte-txokoa.**
- **Hiri-ordenazioko Plan Orokorra behin betiko onartzea.**

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

- **2007. urtean zehar garatuko den estrategia Legazpiko Agenda 21 bultzatzeko eta sendotzeko. Marko berri honetan, zein da foroaren eginkizuna?**


Inmaren azalpenaren ondoren, Juan Ramon Larrañaga Legazpiko alkateak udaletxean garatzen ari den proiektu berri bat aurkeztu digu.



Ihobe (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren kudeaketarako Sozietate Publikoa) eta Kualitate Lantaldea enpresen aholkularitza teknikoarekin, **Legazpiko Udala Legazpiko Agenda 21 bultzatzeko eta sendotzeko** proiektu batean dago murgilduta.

Azkeneko hiru urteotan Agenda 21aren eskutik udalerriak iraunkortasuna lortzeko egin duen bidean geldialdi bat egin nahi da. Etenaldi horretan indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatu nahi dira eta, ahal izanez gero, Legazpiren etorkizun iraunkorrerantz abiatzeko estrategia ezarri.

Zein da azken helburua? **Legazpin, Kudeaketa Iraunkor Parte-hartzailea** lortzea (GPS eredua). Eredu horren ardatzak ondoko irudian ageri dira:



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

Horretarako, Legazpiko Udalak eta Kualitate Lantaldea enpresako taldeak **diagnostiko** bat egin dute eta Agenda 21eko prozesuan "nola gauden, zein heldutasun-maila lortu dugun" aztertu da; eta hori hiru alderditan: Udaletxean, gizartean eta tokiko Ekintza Planean.

Diagnostikoaren emaitza? Ondoko irudian ikus daiteke. "Oinarrizko maila" Legazpin lortu dena izango litzateke; hala ere, **hobetzeko ahaleginak "Bikain maila" izeneko koadroetan proposatutako gaiak eta erronkak betetzera bideratu behar dira.** Eta, segidan ikusiko dugunez, arlo horretan oso inportantea izango da foroaren eginkizuna.


EL MODELO DE ANÁLISIS PROYECTIVO GPS 21 SE BASA EN LA SIGUIENTE PLANTILLA E IDEARIO DE DIAGNÓSTICO PROYECTIVO

MODELO DE DIAGNÓSTICO PROYECTIVO GPS 21 "Hacia la Gestión Participada Sostenible"		
EJE ANALÍTICO: EL AYUNTAMIENTO	EJE ANALÍTICO: LA SOCIEDAD	EJE ANALÍTICO: EL PLAN DE ACCIÓN LOCAL (P.A.L.)
PRIMER NIVEL "BÁSICO" 1. Realización del Diagnóstico Ambiental 2. Constitución Foros de Ciudadanos/as 3. PAL: Elaborar-Aprobar 4. Comunicación Social Proceso AL 21	PRIMER NIVEL "BÁSICO" 1. Convocatoria Regular de Foros 2. Consolidación Grupo Participativo 3. Representatividad Grupo Participativo 4. Motivación del Grupo Participativo	PRIMER NIVEL "BÁSICO" 1. PAL Ambiental-Sostenible 2. Fijar Tres Niveles de Estructuración PAL 3. Precisar Acciones del PAL 4. Integrar las Demandas Sociales en PAL
SEGUNDO NIVEL "NOTABLE" 5. Impulso Político 6. Impulso Técnico 7. Comunicación Interna AL 21 8. PAL: Ejecutar-Evaluar 9. Estructuras para la Gestión	SEGUNDO NIVEL "NOTABLE" 5. Conocimiento Proceso AL 21 6. Participación para la Acción 7. Comunicación Resultados Participación 8. Fijar Objetivos y Funciones Participación 9. Estructuras para la Participación	SEGUNDO NIVEL "NOTABLE" 5. Desarrollar Tres Dimensiones Sostenibles 6. Objetivo Municipal Estratégico Sostenible (OMES) 7. Vincular el OMES con cada Área Gestión 8. Integrar el Conjunto de Acciones en PAL 9. PAL: Referente de la Gestión Municipal

¡Hemen hobetu behar dugu!

El cómo avanzar, la estrategia de acción para fortalecer e impulsar la Agenda 21 de Legazpi que vienen perfilando el Ayuntamiento y Kualitate Lantaldea tiene forma de diamante. En pocas palabras, persigue:

- Definir un **modelo de Municipio Sostenible para Legazpi**, que sirva de base para la elaboración del **III Plan de Acción Local hacia la Sostenibilidad**.
- Un modelo de Municipio Sostenible que implica **trabajar y desarrollar las tres dimensiones de la sostenibilidad: la social, la ambiental y la económica**, a fin de establecer estrategias y proyectos para la acción que sean coherentes y estén interrelacionadas entre sí.
- Y en el que son claves la **comunicación** (para tratar de difundir este proceso y sus objetivos al Municipio de Legazpi) y la **participación**, a través del Foro de Agenda 21.



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

Eta testuingurua azaldu ondoren (korapilotsua baina ezinbestekoa marko berria ulertzeko), galdera bat sortu zaigu:




Eszenatoki berri horretan, zein da Legazpiko Agenda 21eko foroaren eginkizuna?

Guztion artean eztabaidatu eta erantzun behar dugun galdera da hori. Horretarako, udalerriko **Agenda 21eko foroaren gainean** gaur egun dugun ikuspegia ezagutu nahi izan dugu. Ekintza iraunkorraren marko berria foroak etorkizunean izan dezaken eginkizuna esperientzia parte-hartzaileak berak emango digula uste baitugu.


Beraz, kolorezko txartelak erabiliz, lehenengo norberak erantzun ditu hurrengo hiru galderak; ondoren, denok elkarrekin erantzun ditugu galdera berberak:

- **Nola definituko zenuke Legazpiko Agenda 21eko foroa?** Zure ustez, zein da bere egungo eginkizuna?
- Legazpiko bestelako gune parte-hartzaileekin (batzordeak,...) alderatuz gero, **zertan da desberdina?**
- Zer botatzen duzu faltan Agenda 21eko Foroan? **Nola hobe daiteke?**



Emaitza interesgarria izan da eta aurrerantzean gure Foroak izango duen eginkizuna definitzen lagunduko digu. Hona hemen emaitza hori: Ideia guztiak dira baliotsuak eta bakoitzak "arrasto" bat eskaintzen du; beraz, ondoren bakoitzak esan duena eta debateak eman duena islatzen saiatuko gara. Zuen ahaleginak merezi duelako!

Irudia: Banaka eta taldean egin den lanaren emaitza.



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

• **1. Nola definituko zenuke Legazpiko Agenda 21eko Foroa? Zure ustez, zein da gaur egun betetzen duen eginkizuna?**

Norberaren hausnarketak...

- Legazpiko udalerrriaren garapenean inplikaturik dauden pertsonen bilera baina, batik bat, Ingurumenarekin lotutako gaiak aztertzeko; hala ere, aipatu dira beste gai batzuk (irisgarritasuna, Hiri-ordenazioko Plan Orokorra,... eta abar).
- Eremita desberdinen arteko topaketa. Informazioa Tokiko Agenda 21ari buruz. Gai desberdinei buruzko iritziak eta ideiak. Taldeko erabakia.
- Gure bizi-kalitatea hobetzeko topagunea.
- Jarduera desberdinak programatzen dituen eta, ondoren, ahal den neurrian burutu eta ebaluatu egiten dituen foroa da. Ekintza desberdinak proposatzen ditu eta herritarren parte-hartzea bultzatzen du.
- Gai desberdinak eztabaidatzeko pertsona taldea. Orain arte ia ingurumenarekin loturiko gaiak bakarrik tratatu dituela uste dut. Gaurkotatzen duten gaiak mahai gainean jartzea (mugikortasuna, autorik gabeko eguna, bizikletaren erabilera bultzatu, Erreka eguna,...).
- Foro honetan, udaletxeak ingurumenaren alorrean daraman kudeaketa ezagutzen dugu eta, horrez gain, gure iritzia eman dezakegu eta, ahal den neurrian, aldaketa batzuk proposa ditzakegu. Foroaren eginkizuna herria garapen iraunkorrean inplikatzeko eta parte hartzea bultzatzea dela uste dut.
- Legazpiko tokiko Ekintza Planaren jarraipena egiten duen organo aholkularia da. Udal kudeaketa aberasten duen organoa da, gai berriak kudeaketan sartuz (aire-kutsadura), lehentasunak ezarri,...
- Herriaren funtzionamenduari bilakabidea kontrolatzeko taldea.
- Gure herria hobetzea helburu duen parte-hartze taldea. Dibertsitatea eta pluraltasuna.
- Iraunkortasun proiektuarekin Legazpin egiten ari denari esanahia eman; gizarte arloa arlo ekonomikoarekin eta garatuko diren arloekin lotuz.
- Iraunkortasunarekin lotutako gaietan (ingurumena,... eta abar) herritarren parte-hartzea bideratzen duen organoa da, Udalarai aholkua emateko eta erarekin batera jarduteko.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen taldea: ideiak ematen dituen eta laguntza eskaintzen duena.
- Informazioa trukatzeko lekua. Iraunkortasunaren eremu desberdinei buruz herritarrek duten pertzepzioa biltzen du taldeak eta udal kudeaketan txertatzen saiatzen da.
- Gauza txikiak, ideiak,... eskaintzen ditu taldeak, oro har, ingurumena hobetzeko.
- Informazio desberdina: zer da?, nola funtzionatzen du? Zein da bere etorkizuna?, zer eman daiteke?.
- Ingurumenarekiko sentsibilizatuta dagoen pertsona-talde bat, noizean behin elkartu eta hainbat gairen gainean hausnartzen duena.
- Herritar-talde bat, hasieran entzutera eta ingurumen arloko gaiei buruz bere iritzia ematera zetorrena eta, poliki-poliki gai zehatzetan ideiak ematen hasi dena.
- Iraunkortasuna lortze aldera, ahalik eta adostasun zabalena lortzeko ideiak ematea helburu duen herritarren parte-hartze taldea.

• **Laburtuz...**

Idea nagusiak, batera-jartzearen emaitzak

- **Zer da?**
 - Legazpin bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoarekin sentsibilizatuta dauden pertsonen topagunea; bere ekarpenekin udal kudeaketa aberasten duen gunea.
 - Agenda 21etik sortu denez (hasieran ingurumenarekin lotuta zegoena), Foroaren gaiak batik bat ingurumen-gaiekin egon dira eta daude lotuta. Baina, era berean, iraunkortasunaren perspektibatik udalerrriaren ikuspegi globala eta integrala mantentzen da.
- **Zein betebeharrak betetzen ditu?**
 - Informazioa trukatzeko eta udalerrian eragina duten gai eta proiektu zehatzetan gainean ideiak eta proposamenak jasotzeko gunea (azken finean, herritarren pertzepzioa). Horrez gain, landu eta/edo eztabaidatu diren gaietan ahalik eta adostasun handiena lortzen saiatzen da.
 - Aholku-emailea da.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

• **2. Zein desberdintasun ditu Foroak Legazpiko beste parte-hartzeko guneekin alderatuz gero (batzordeak...)?**

Norberaren hausnarketak...	<ul style="list-style-type: none"> • Atsegin dut, parte hartzen duten pertsonak desberdinak izatea eta ideia politikoetara lotuta ez egotea. Ez dakit beste taldeen funtzionamendua nolakoa den. • Nire ustez, parte hartzen duten pertsonen pluraltasuna. • Udallerriarekin zerikusia duten gaietara iritzi desberdinak, ikuspegi desberdinak. Ez dakit zehatz mehatz zein pisu duen egin diren proiektuen aurrean. • Orokorragoa eta pluralagoa da. Nabaria da zintotasuna, taldekideen artean adin-tarte handia izan arren eta ideia politiko desberdineko jendea egon arren. • Beste talde batzuk beraien arloa garatzen dutela uste dut baina askatasunez. • Agenda 21eko Foroa irekiagoa da, udaletxeko batzordeetan gai zehatzak aztertzen dituzte (euskara, kultura,...). Gainera, foroaren bilerak ongi zuzenduak eta egituratuak daude eta hori faltan botatzen da bestelako batzordeetan. • Bestelako foro edo batzordeetan parte-hartzaileek bertako gaiak hobeto ezagutzen dutela pentsatzen daiteke. • Gune irekia da eta parte-hartzea handi daiteke; ez da batzordeetara, alderdi politikoetara,... itxia. • Kudeaketaren alderdi guztiak lantzen dituen foroak (gizarte arlokoa/ekonomikoa/ingurumenekoa). Gai desberdinak. • Pluralagoa. • Foroaren osaera heterogeneoa da, besteek baino pluralagoa. Foroan aztertzen den gaia integralagoa da, bestelako batzordeetan aztertzen diren gaiak baino zeharkakoagoa. • Oinarrizko aldea, momentuz, parte-hartzaileagoa dela da eta, era berean, izaera osoagoa eta integratzaileagoa du. • Nabarmenena pertsonen izaeran dagoen desberdintasuna dela uste dut. Gai horietan iritzi oso desberdinak ematen dituztenak. • Foroan parte hartzen dutenen dibertsitatea. • Herritarrak kontzientziatuta daude aztertzen den gaiarekiko (horrek ez du esan nahi beste gaietara kontzientziarik ez dagoenik). • Herritarren parte-hartzeari irekiagoa da. Gaiak sakonago aztertzen dira. • "Kutsadura politiko" gutxiago dago eta giro parte-hartzaileagoa nabari da. Ez dago alkateari edo dagokion zinegotziari "hatza begian sartzerko" asmorik..... • Talde desberdinaren ikuspegi globala.
----------------------------	--

• **Laburtuz...***

Ideia nagusiak, batera-jartzearen emaitzak	<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen osaera eta izaera: Heterogeneoa eta ezberdina pertsonetan, iritzietan eta ikuspegietan; plurala eta irekia; politikoki, ez hain "kutsatua", bihozberagoa. • Izaera parte-hartzailea: Informatzeaz gain, ideiak eman eta jasotzen dira, proposamenak,.... • Antolaketa-alderdiak eta lan egiteko era: Bilerak ondo egituratuta daude eta ongi zuzenduta; aktak atseginak dira. • Landutako gaiak: dagokienez: Foroa ikuspegi global batetik abiatzen da eta gero gai desberdinetan artikulatzen da (horien artean orain arte ingurumeneko gaiak izan dira nagusi); gainera, bestelako batzordeekin alderatuz, gaiak eta proiektuak sakonago eta zehatzago aztertzen dira.
--	---

OHARRA: Gaur hemen bildutako pertsonak gaia ezagutzen ez dutela ikusirik, Juan Ramon Larrañagak udal-antolaketari buruz oinarrizko hainbat datu eman ditu eta Legazpin parte hartzeko dauden guneen berri eman du (batzordeak batik bat). Laburtuz: Udaletxeko departamentu bakoitzak batzorde bat du. Batzorde horien eginkizuna da ondoren Osoko Bilkuran aztertuko diren gaiak buruz dagozkion irizpenak egitea. Marko horretan, non kokatzen da Agenda 21eko Foroa? Kanpoaldean geratzen da, "aterki" gisa, eta horrek ikuspegi zabalagoa izatea ahalbidetzen dio.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

• **3. Zer botatzen duzu faltan Agenda 21eko Foroan? Nola hobeto daiteke?**

Norberaren hausnarketak...

- Herritarrentzako, oro har, parte-hartze handiagoa lortzeko bidea eta, gauza horietan ohituta ez daudenentzat, ulerterrazagoa.
- Gazteen parte-hartzea botatzen dut faltan.
- Tarte handia dago bileren artean.
- Kale-zainketaren edo kalearen egunekoaren gaineko iradokizunak eta kritikak jasotzeko aukera izatea.
- Hainbat sektoretako ordezkariaren falta sumatzen da: kirolariak, elkarteak, ikastetxeak eta bestelako erakundeak.
- GPS delakoan planteatu denaren arabera, foroak eginkizun garrantzitsua du haren garapenean, bestelako erakunde edo elkarteekin batera.
- Herritarren parte-hartze aktiboagoa. Urteko egutegia.
- Gaia hain zabala izanik, talde desberdinak sor daitezke dauden arazo desberdinak aztertzeko.
- Beste hainbatetan bezala, denbora. Egutegiak.
- Jendearen parte-hartze handiagoa; bestetik, hainbat ideia ezin dira burutu aurrekontu-faltagatik edo bestelako arazoengatik.
- Kolektibo gehiago (adibidez, gazteak). Erraztasun handiagoa gai zehatzetan ekarpenak egiteko.
- Gaztearen parte-hartzea falta da.
- Gazteen parte-hartzea falta da.
- Gazteak falta dira, antolatutako taldeak (auzoak...). Herritarrek foroan gehiago parte-hartzea lortzen ari dela uste dut; asko hobetu dira metodologia eta aktak.
- Gazteen parte-hartze handiagoa; baita Gizarte Zerbitzuen batzordearena eta pertsona nagusia ere.
- Nire aldetik, gaiaren ikuspegi globalagoa izatea; gazteen parte-hartzea (ez al dira dagoeneko ekologistak geratzen?); ez al daude Gobernu kanpoko erakundeetako ordezkariak?; animaliak gehiago babestea (ba al dago Agenda 21ean animaliei ematen diegun tratu etikoari buruzko erreferentziarik? Ez dakidala onartzen dut).
- Edozein forotan herriko eremu bizietan sartuta dauden pertsona guztien parte-hartzea lortzea izango litzateke egokiena. gizarte-arloa, ekonomia, politika, ongizatea, osasuna, ingurmena....
- Biziagoa izan beharko litzateke.
- Ez da oso kontutan hartzen proposatutako konponbideen alderdi ekonomikoa. Agian horregatik, dirutan ebaluatzen ez delako, hainbat irtenbide zokoratuta geratzen dira.
- Parte-hartzea oraindik ere zabalagoa izan beharko litzateke. Parte-hartzea interesatua ez izatea lortu behar da (zuzenean interes bat dagoelako izatea).. Aztertuko diren gaiak era berean desberdinak eta zehatzak izan daitezela.

AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

• Laburtuz...

Idea nagusiak, batera-jartzearen emaitzak

- **Taldearen osaerari eta ordezkartzari dagokionez:** ezinbestekoa da foroan talde berriak sartzea, berta dagoen dibertsitatea hobe dadin. Hauek datozkigu burura:
 - 18-30 urte bitarteko gazteak;
 - * Auzokideen eta bizilagunen elkarteak;
 - Ezgaitasunen bat edo zailtasun psikiko-motoreak dituzten pertsonak (etorri izan direla zenbait bileretara);
 - Dendariak;
 - Etxekoandreak;
 - Baserritarrak;
 - Herriko talde zehatzak (kirol-taldeak...);
 - Pertsona nagusiak (65-75 urte bitartekoak).

Pertsona eta talde berri horiei sarrera ematea erronka bat da Foro honetarako. Gainera, taldean egonkortasuna bultzatzea inportantea dela uste dugu, gai zehatzetan egon daitekeen parte-hartze "interesatua" gainditu egin dela esan nahi duelako.
- **Landu diren gaietan eta proiektuetan dimentsio ekonomikoa aintzat hartzea:** Gaiak aztertzen direnean inportantea da alderdi ekonomikoa ere aztertzea; horrela egitean hainbat proiektu edo ideia zokoratuta ez geratzea lortuko genuke.
- **Bileren egutegia eta Foroaren bizitasuna:** Garrantzitsua da bileren maiztasunarekin egutegi bat egitea; modu berean, oinarritzak da komunikazioa zaintzea Foroa sendotzen joan dadin eta heldutasuna lor dezan. Denboratarte luzeak izatea ezer egin gabe (bileren arteko etenak) ez dira onak.
- **Antolaketari eta eginkizunei dagokienez (beste batzordeekin alderatuz):** Gai horrek eztabaida sortu du taldean eta desberdinak izan dira planteatu diren aukerak:
 - Foroak elkartuta egin behar du lan edo taldetan banatuta? Alde batetik, Foroak orain arte bezala lanean jarraitzea proposatu da, talde bakarra legez. Beste aukera bat azpi-taldeak egitea da eta talde txiki horietan gai zehatzak sakon daitezela. Hala ere, zalantza bat sortzen da: Foroa prest al dago azpi-taldetan banatzeko, banaketa horrek bere elkartasuna hautsi gabe? Gainera, gai zehatzak talde txikietan aztertuz gero, ez al litzateke orain arte foroak mantendu duen ikuspegi global hori murriztuko?
 - Zein gai-mota aztertu behar du Foroak? Galdera horren gainean ere oso desberdinak dira iritzia: Taldekide batzuk Foroa ingurumen arloko gaietan zentratu behar dela uste dute (hori izan delako bere abiapuntua); izan ere, gaia zabalduz gero eta bestelako arloak (gizartea, kultura,...) ukituz gero, korapilatu egin daiteke kontua. Horrela, alternatiba bat proposatu da: Foroa "aholku-taldea" izan daiteke udaletxeko gainerako batzordeetan landuko diren gaiak edo proiektuak girotzeko orduan.

Bukatzen dugu eta dagoeneko jarrita utzi ditugu hurrengo bilerarako eguna eta eginkizunak.

Bilera sakona gaurkoa eta argia ikusten lagundu dizkigun hausnarketez betea (izan dugun argi-itzalaldia barne); horrela iritsi gara bukaerara. Baina alde egin aurretik egun berri bat finkatu dugu gure agendan. Ohi bezala deialdia bidaliko dugu baina jakin ezazue hilabete barru hemen elkartuko garela berriro: **martxoaren 1ean (osteguna), arratsaldeko 18:30an Legazpiko udaletxean.** Eta dagoeneko badakigu gai-zerrendan sartuko diren hainbat gai; hauek dira:

- Batetik, gaurko ideiak jaso ondoren eta eztabaidaren ondoren, ahalegin bat egingo dugu eta Legazpin Kudeaketa parte-hartzaile iraunkorraren proiektuarekin irekitzen den eszenatoki berrian Agenda 21eko Foroak izan dezakeen eginkizunari buruz proposamen bat ekarriko diogu taldeari idatziz.
- Bestetik, eta 2007. urterako aurrekusi diren Tokiko Ekintza Planaren proiektuetatik abiatuz, datozen bileretan Foroak lan dezakeen gaia zein izan daitekeen erabakiko dugu denok elkarrekin. Udalak proposamen bat egin du horren gainean eta Foroak azter dezakeen hurrengo gaia Kale Nagusia oinezkoentzat jartzeko proiektua izan daitekeela esan du. Baina hori martxoaren 1ean berriro elkartuko garenean erabakiko dugu!



AGENDA 21eko FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/02/01	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu bat eta hiru ordu laurden	Lekua: Batzar Aretoa. Legazpiko udaletxea
----------------------	--	--

Gainera, Juan Ramon Larrañaga alkateak pasatu digun orri informatibo bat jaso dugu. Juan Jose Ibarretxe **Lehendakariak martxan jarri du "Konpondu" izeneko ekimena bakea eraikitzeko lanetan herritarren parte-hartzea lortzeko. Esperientzia pilotu moduan 12 udalerrik hartuko dute parte eta horietako bat Legazpi izango da.**

Hori dela eta, otsailaren lehenengo hamabostaldian herritarren parte-hartzea bultzatzeko tailer bat egingo da eta bertan, interesa duen edozeinek hartu ahal izango du parte; dena den, gehieneko kide-kopurua dago ezarrita eta horrek baldintzatu egin dezake taldearen osaera. Informazio gehiago nahi izanez gero udaletxera jo daiteke edo ondoko web-orriak ikus daitezke: www.legazpiko-udala.info eta www.konpondu.net.

Gaurkoan ere Foroan izandako giro jatorrak gutxiago merezi ez duenez,
esker mila guztioi eta martxora arte, izan ongi!